



Arartekoaren 2015R-835-15 Ebazpena, 2015eko abenduaren 22koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatu zaio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbatekoak eskatzean jardunbide jakin batzuk burutu ditzala.

Aurrekariak

1.-Lanbidek, 2015ean, zenbatekoak eskatzeko prozedura hasi aurretiko hainbat jakinarazpen bidali dizkie diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaileei. Jakinarazpen horietan, organismo horrekin zorra zutela jakinarazi zitzairen, denbora tarte jakin bati zegokiola zor hori eta borondatezko ordainketa egin zezaketela.

2.-Arartekoak jarduteko modu horri buruzko ofiziozko jardunbidea abiarazi zuen, eta aurretiazko zenbait gogoeta helarazi zituen prestazioak eta erreklamazio horien xede ziren kontzeptuak eskatzeko prozedurari buruz. Errepikakorrak ez izatearren, gero errepikatuko ditugu gogoeta horiek.

Aurretik ere, Lanbideren jarduera aztertu zuen Arartekoak. Izan ere, jakinarazpen kopuru handia bidali zuen horrek, 10.000 inguru 2014ko irailean, eta Arartekoaren 2015eko ekainaren 8ko 2015NI-2120-14 Ebazpena ekarri zuen horrek. Aipatu ebazpenaren bidez, amaitutzat jo zen bidegabe jasotako zenbatekoak eskatzeko orduan Lanbidek jarraitutako prozedurari buruzko esku-hartzea.

Arartekoak honako kontuen gaineko informazio-eskaera egin zuen:

- a) Ze kasuetan bidaltzen ari da zorraren jakinarazpena?
- b) Zein da oker jasotako prestazioak erreklamatzeko jarraitzen ari den prozedura?
- c) Prestazioen itzulera erreklamatzeko ari da betebeharrak betetzen ez direnean baina prestazioaren titularra izateko irizpideak betetzen direnean?
- d) Prestazioen itzulera erreklamatzeko ari da etetearen iraupen epea aurreikusten duen araudiaren betebeharrak bete ez direnean?
- e) Nola egiaztatzen du Lanbidek 147/2010 Dekretuaren 56. artikulua eta 2/2010 Dekretuaren 34. artikulua ezarriz?
- f) Adierazi genizkizun gogoeten inguruan duzun iritzia.

3.-Lanbidek, Lanbideko zuzendari orokorraren txostenaren bidez, Arartekoaren informazio-eskaerari erantzun zion, aurreko kontuei aipamena eginez.

Lehenik eta behin, interesdunari bidegabe jasotako zenbatekoak daudela jakinarazteko aurretiko jakinarazpenek borondatezko izaera dutela adierazi du, eta,



hortaz, ez dela ondorio kaltegarrikerik eratoritzen aipatu jakinarazpenei aldeko arretarik ez emateagatik.

Jakinarazpen horiekin jarraitzeko komenigarritasuna adierazi du, murrizta izan arren, igorritako guztiekin alderatuz gero, horiei aldeko arreta ematen dieten erantzunen ehunekoa. Izan ere, administrazioarekin zorra kitatzeko modua ematen dute, xede horretarako ezarri den prozedura saihestuz, eta, gainera, zorraren arrazioez eta berau sortu den denbora tartean informatzean, interesdunarengan ez dela inolako babesgabatasunik eragiten uste du.

Beste alde batetik, Lanbideren asmoa berretsi du, bere egunean Arartekoari adierazitakoa. Hau da, ez dauka jakinarazpen horiek aurreko urteetan bidegabe jasotako zenbatekoetarako bidaltzeko asmorik; bai, ordea, abian dauden espedienteetarako, administrazio-arintasuna dela-eta.

Gainera, Arartekoak bidalitako iritziaren gainean duen desadostasuna arrazoitu du. Arartekoak adierazi zion betekizunak betetzen dituzten baina betebeharren bat urratu duten hartzaileek eta betekizunak bete gabe betebeharren bat urratu dutenek trataera ezberdina jaso beharko luketela.

Lanbideren iritziak, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 55. artikulua, bidegabe jasotako prestazioak kobratzeari ekitera behartzen dituen administrazioak, ez du bereizketarik egiten zenbatekoak bidegabe jasotzeko arrazioen artean, hots, berdindio betekizunen edo betebeharren urraketa gertatu den, balioetsi baitu prestazioaren zenbatekoak bidegabe jaso izana dela garrantzitsua. Eta gauza bera gertatzen da maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 56. artikulua ere, izan ere, ez du bereizketarik egiten bidegabe jasotako zenbateko hori eragin duten arrazioen artean, zirkunstantzia hori egiaztatzea izaki garrantzia duen bakarra.

Lanbideak adierazi du Arartekoak formulatutako hausnarketarekin bat eginez ari direla ez-betetze mota jakin batzuk zigortzeko prozedurako kasuen markoan kokatzeko bideragarritasun juridikoa aztertzen.

Zera erantzun du iritzia eskatu zitzaion kontu batzuen gainean: *“Halaxe da, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duen bezala, aldatze-, etendura- edo iraungitze-prozedura baten ondorioz, edo beste zeinahi inguruabar dela medio, egiaztatzen bada DBE jasotzen dela, Lanbideak haiek itzultzeko obligazioa ezartzen dio bidegabeki jasotako prestazioen persona titularrari, edota okerreko zenbatekoan jaso dituenari. Azpimarratu behar da kasu horietan bidegabeki kobratutako prestazio horien existentziaren egiaztapena del axola duena, edozein izan dela ere kobrantza horiei bide eman dien kausa.”*

Azkenik, honakoa adierazi du: *“...prestazioen itzulketa erreklamatzeko da, bai obligazioak bete ez direnean, eta bai baldintzak ez direla betetzen egiaztatzen denean, barnean sartzen direlarik araudiak prestaziorako eskubidearentzat etendura-epe bat aurreikusitako kasuak.”*





Bestalde, Arartekoko eta Lanbideko langile batzuek egindako bilera batean, hitzeman ziguten prestazio ekonomikoak eten, bertan behera utzi edo aldatzeko administrazio-prozedura irmoa izan arte, ez zela hasiko prestazioak erreklamatzeko prozedura.

Gogoetak

1.-Erakunde honek ulertu zuen, lehen aipatu dugun ofiziozko jardunbidearen ondorioz eta erakunde honetako langileekin edukitako bileren ostean, Lanbidek ez zuela berriro bidaliko bidegabe jasotako prestazioak eskatzeko jakinarazpen mota hori, eta zuzenean ekingo ziola zenbatekoak eskatzeko prozedura irekitzeari. Diru-sarrerak bermatzeko errenta arautu duen 147/2010 Dekretuko 57-59. artikuluetan eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautu duen 2/2010 Dekretuko 34-36. artikuluetan aurreikusi da zigortzeko prozedura hori.

Lanbidek jakinarazi du aurretiko jakinarazpena egiten jarraituko duela. Hala ere, bidalketa ugaririk ez egiteko konpromisoa berretsi du, bai eta zorraren arazoiez eta berau sortzeko denbora tartean egoki informatzekoa ere. Erakunde honek ondo baloratu du konpromiso hori. Bestetik, komunikazio horiei ematen zaizkien aldeko erantzunen ehunekoa txikia dela aipatu du.

Arartekoaren ustean, ordea, **berrikusi egin beharko litzateke** aurretiko jakinarazpen horren bidalketa, nahiz eta banakako espedienteetan bakarrik izan; batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoak eteteko edo iraungitzeko ebazpenarekin batera bidaltzen denean jakinarazpen hori. Pertsonak prestazioak eteteko edo iraungitzeko ebazpena jasotzen du, hau da, prestazio ekonomikoak jasotzeari utziko diola dioen ebazpena, eta, gainera, zenbateko ekonomiko jakin bat zor duela jakinarazten zaio, borondatez ordain dezan. Prestazioak eteteko edo iraungitzeko ebazpenei, kasu gehienetan, berraztertze errekurtsoa jartzen zaie. Ez da zentzuzkoa berraztertze errekurtsoaren ebazpena egin baino lehen bidaltzea ezbaian dagoen jardura baten gaineko jakinarazpena, hau da, zorraren jakinarazpena aurretik bidaltzea borondatez ordain dezaten, batez ere, kontuan hartzen badugu horrelako kasu askotan oso eztabaidagarria izaten dela bidegabeko prestazioak sortu izana. Gero aztertuko dugu hori. Gainera, seguru asko, prestazioak eten edo iraungi direnean egoten diren borondatezko ordainketak oso murrizak izaten dira, edo ez dira egoten.

Bestalde, zentzu handiagoa dauka aipatu jakinarazpena bidaltzeak, **dagokion prestazioaren zenbatekoa aldatu ez izanagatik** sortutako bidegabeko zenbatekoan jaso direnean prestazio ekonomikoak, nahiz eta zirkunstantzien aldaketak jakinarazi izan aurretik. Kasu horietan, interesdunak jakinarazi duen zirkunstantzien aldaketaren ondoriozko zorra sortu izanari buruzko informazioa aurreratzen da. Horrekin, pertsonak lehenagotik ezagut dezake aurre egin beharreko zenbatekoa, bai eta berau ordaindu ere, horren jatorria onartzen badu fase horretan. Hortaz, administrazio eraginkortasunaren printzipioarekin bat egiten du praktika horrek.



Prestazio bat jasotzeko eskubidea dagoenean, eta, interesdunak zirkunstantzien aldaketa egon dela jakinarazi ondoren, zenbatekoa egokitzeko orduan atzerapena gertatzeak, bai eta jaso beharko ez lituzkeen prestazioen abonua rengatik zorra sortzeak ere, ezinegona eragin izan dute prestazio ekonomiko horien hartzaileengan, eta erakunde honetan aurkeztu diren kexa askoren iturri izan dira. Beraz, ondo baloratu da, zorraren jatorriari buruzko behar besteko informazioa eduki ondoren, zorra borondatezko ordainketaren bidez kitatzeko aukera izatea.

2.-Lanbideren ustez bidegabe abonatu diren eta horren ondorioz eskatzen diren prestazioei dagokienez, erakunde honek bestelako jarrera dauka. Berrito errepikatuko dugu, araudi aplikagarriaren interpretaziorako garrantzi handia dauka eta.

Lanbideri hainbat aldiz adierazi diogun bezala, gabezia handiak dauzkate diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradunek betebeharren bat bete ez edo betekizunen bat galtzen dutenerako ezarri diren aurreikuspenek. Aurreikuspen horiek aipatu prestazioak erregulatzeko dekretuetan (147/2010 Dekretuan eta 2/2010 Dekretuan) daude jasota, eta prestazioak etetea edo iraungitzea ekar dezakete (baita urraketak egotea eta zigorrak ezartzea ere, 8/2008 Legearen VII. izenburuan aurreikusi denaren arabera). Araudiak ez ditu argi bereizten betekizunak betetzeko eskakizuna eta betebeharrak betetzeko, ezta prestazioen titularrek eta bizikidetz-unitateko gainerako kideek bete beharreko betebeharrak zehatz eta esplizituak ere. Era berean, zigortzeko prozedura ez da garatu eta ez dira aplikatzen ari, daukagun informazioaren arabera.

18/2008 Legeak ez du bete beharreko betebeharren zerrenda zehatzik egin. Horrela, zera ezarri du 19.1.j) artikulua: *"Diru-sarrerak bermatzeko errentaren xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezarriko direnak."*

147/2010 Dekretuak betebeharrak zehatzak ezarri ditu, baina, jarraian ikusiko dugun bezala, *numerus apertus* bat aurreikusi du gainerako betebeharrarentzat. Horren ondorioz, prestazioak eteteko prozedurak has daitezke, pertsonak bete behar dituenik ere ez dakien betebeharrangatik.

147/2010 Dekretuko 12. artikulua diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren betebeharrak zerrendatu ditu. 1.j) atalean honakoa aurreikusi du: *"Dagokion modalitatean, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak diren guztiak, betetzea."*

Zentzu horretan, 147/2010 Dekretuko 43.2. artikulua zera aurreikusi du eteteko arrazoi gisa: *"Titularrak edo bizikidetz-unitateko kideren batek prestazioa lortzean hartutako betebeharren bat aldi baterako ez betetzea, bereziki dekretu honen 12. artikuluan adierazitakoak eta zehazki honako hauek (...)"*. Xedapen horren hitzak eta 18/2008 Legeko 26.1.b) artikulukoak antzekoak dira.



Administrazioak ez du arauzko eskumena erabili betebeharrak eta eteteko arrazoiak zehazteko orduan, **prestaziorako eskubidearen gainean ondorio handiak dituztenean.**

18/2008 Legearen 34. artikulua, era berean, etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularren betebeharrak ezarri ditu. h) atalean honakoa adierazi du: *"Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezarriko direnak".* 2/2010 Dekretuko 7.2. artikulua zera aurreikusi du f) idatz-zatian: *"Dagokion modalitatean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak diren guztiak, betetzea".*

Prestazioetarako eskubidea ematen den unean, aipatu araudiak ezarritako betebeharrak baino ez dira kontuan hartzen, **salbu eta sartzeko hitzarmenean gerora txertatu daitezkeenak.**

Arartekoaren iritziz, komenigarria litzateke etorkizunean zehaztasun maila handiagoz zehaztea prestazioen titularren betebeharrak, izan ere, bestela izanda, **babesgabetasuna sortzen da.**

Batez ere, betebeharrak ez betetzeari ematen zaion trataeragatik eskatu da betebeharrak zehazteko, prestazioaren hartzaileen ondarean oso ondorio larriak edukitzen ari baita. Izan ere, Lanbide abonatuak prestazioak itzultzeko eskatzen ari da, betebeharrak bat ez betetzeagatik prestaziorako eskubidea etetea erabaki den kasuetan, eta erakunde honek ez du bat egiten interpretazio horrekin, jarraian azalduko dugun moduan.

3.-18/2008 Legeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidea etetea aurreikusi du, bai berau aitortzeko eskatzen den betekizunen bat aldi batez galdu denean, bai titularrak edo bizikidetzaren unitateko kideren batek aldi batez bete ez baditu prestaziorako sarbidean onartutako betebeharrak.

147/2010 Dekretuko 45.¹ artikulua honako aurreikuspena ezarri du, etetearen iraupenari buruz:

"1.-Ordainketa etetea eragin duten zirkunstantziak irauten duten bitartean jarraituko du eteteak, gehienez ondoko ondoko hemezortzi hilabeteko aldirako, eta hori igarotakoan, prestaziorako eskubidea azkenduko da.

Etenaldi-kasu bat gertatu bada, baina etendura egiteko garaian kasu hori desagertu bada edo berehala desagertzekotan badago, prestazioa eten ahal izango da

¹ 147/2010 Dekretua ez zaio diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko legea moldatu duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeari egokitu. Lege horrek iraungitzeko arrazoi gisa aurreikusi du (28.1. artikulua) etete egoeran egotea hamabi hiletik gorako aldi jarraituan.

kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko den aldi batez, eta aldi hori ez da inola ere ez-betetzearen kausa den iraupena baino handiagoa izango.

2.-43. artikulua 2. paragrafoa a), d) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, etendura hilabetekoa izango da lehen aldiz gertatzen denean eta 3 hilabetekoa ondoren berriro gertatzen bada, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen.

3.-Enplegu egoki bati arrazoi justifikatu bat gabe uko egin zaion kasuetan, uko egindako enplegurako aurreikusita zegoen iraupen berbera izango du etendurak, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen.

Enplegu horrek izan dezakeen iraupena ezezaguna denean, etendura hiru hilabetekoa izango da, eta kontratu mugagabe bati uko egin zaionean etendura hori hemezortzi hilabetekoa izango da”.

Beste alde batetik, prestaziorako eskubidea eteteak prestazioaren ordainketa etetea dakar, 147/2010 Dekretuko 44. artikulua: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetearekin batera utzi egingo zaio prestazioa ordaintzeari, etetearen egunaren hurrengo hilaren batetik aurrera”.*

Ondorioz, dekretu bereko 45. artikulua aurreikusi du prestazioa eteteko arrazoiren bat gertatu denean prestazioaren ordainketa eten daitekeela aldi jakin batez. Honako iraupena edukiko du etete aldi horrek:

- a) Etetea eragin duten zirkunstantziek iraun bitartean.
- b) Eteteko arrazoiak gertatu den kasuetan, baina desagertu egin bada eteteari ekiteko unean, edo berehala utzi ahalko balio gertatzeari, prestazioa aldi batez eten ahal izango da. Tartean dauden zirkunstantzia espezifikoak aintzat hartuta zehaztuko da aldi hori, eta inola ere ezingo du iraun beratu eragin duen ez-betetzearen ondorioak baino gehiago.
- c) Segidan adieraziko diren arrazoiak gertatzen direnean, hilabetez etengo da lehen aldiz gertatzen denean, eta hiru hilez berriro gertatuko balitz:
 - Bizikidetzaren unitatearen eraketan edo baliabideen mailan egondako aldaketak ezarritako epean jakinarazten ez direnean.
 - Aplikagarria denean, enplegurako eskuragarri ez egotea, ez egotea modu jarraituan enplegu eskatzaile gisa izena emanda edo enplegu egoki bat ukatzea 12.2.b) artikuluan² zehaztutako terminoetan.

² Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko azaroaren 24ko 4/2011 Legeak iraungitzeko arrazoi gisa aurreikusi du (28.1.i) artikuluan) indarrean dagoen legediaren arabera egokia den enplegu bati, lan-baldintzak hobetzeari edo



- Aplikagarria denean, diru-sarreraren maila hobetuko luketen lan-baldintzetan aldaketak egiteari ezetz esatea.

Araudiak, bestalde, prestazioa urtebetez eskatzeko ezintasuna ezarri du, betebeharrak ez betetzearekin edo urraketak egitearekin zerikusia duten arrazoiengatik **eskubidea iraungitzea** aurreikusi den kasuetan.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko azaroaren 24ko 4/2011 Legeak idazketa berria egin zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidea iraungitzearen gainean. Azterketa honen xedeetarako, 28. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako aurreikuspena axola zaigu:

“Prestazioa iraungiko balitz betebeharrak ez betetzeari edo hutsak egiteari lotutako kausengatik, titularrak ez du izango aukerarik diru-sarrerak bermatzeko errenta, bere ezein modalitatetan, berriro eskatzeko urtebetean, iraungitze-datatik zenbatzen hasita. Ondorio berbera eratorriko da artikuluko 1.d) eta 1.e) idatz-zatietan jasotako etete-kasuei lotutako iraungitze batetik.” 28.1.d) artikulua: “Etete-egoera bat hamabi hilabetetik gorako denbora jarraituan mantentzea”. 28.1.e) artikulua: “Ez betetzeagatiko bi eten egotea prestazioa indarrean dagoen bi urteko aldi”.

Azken batean, aurreko azterketarekin egiaztatu den bezala, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidea etetea eta iraungitzea erregulatu duen araudiak **ondorioak** aurreikusi ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izanda betebeharren bat betetzen ez duen pertsonaren **ondarean, prestaziorako eskubidea aldi batez iraungitzean edo urtebetez prestazioa eskatzeko ezintasuna ezartzean.**

4.-Betebeharren bat ez betetzeagatik eteteko kausa gertatu dela hautematen duenean Lanbideak, gainera, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jaso diren zenbatekoak itzultzeko eskatzen du.

Gure ikerketan, bereizi egiten ditugu betebeharrak ez betetzeagatiko etete prozeduratik eratorritako zenbatekoak eskatzea (4/2011 Legeak moldatu duen legearen 28.3. artikuluan ezarritako kasuak ere bai) eta **kopuruak aldatzeko prozedura baten ondoriozko edo prestazioaren titularra izateko betekizunetako bat galtzearen ondoriozko zenbatekoak eskatzea.** Azken kasu horietan, Arartekoaren ustez, prestazio ekonomikoak bidegabe jaso direla egiaztatzen da, eta zenbateko horiek itzuli egin behar dira. Beraz, egokiagoa izan daiteke bidegabe jasotako prestazioak eskatzeko prozedura abiaraztea, jada adierazi dugun bezala.

Araudi aplikagarriaren interpretazioan dagoen desadostasuna honetara biltzen da: **titularrak betebeharrak ez betetzearen ondoriozko etete eta iraungitze prozeduretara.** Arartekoaren iritziz, araudiak jada ezarri du zeintzuk diren betebeharrak.

diru-sarrerak areagotzea ekar dezakeen aukera bati, behin eta justifikaziorik gabe, ezetz esatea; beraz, dekretuaren aplikazioa aipatu legean aurreikusitako aldaketari egokitu behar zaio.



bat ez betetzeagatik eteteko arrazoia egotearen ondorioak, arestian adierazi dugun bezala (prestaziorako eskubidea aldi batez etetea edo urtebetez galaraztea prestazioa eskatzea).

Kasu horietan ez da zentzuzkoa Lanbidek, gainera, **betebeharraren ez-betetzea gertatu zen egunetik prestazioaren ordainketa etetea erabaki arte jaso diren prestazioak eskatzea**. Oso kopuru altuak itzuli behar izatea ekar dezake horrek, Lanbidek betebeharra bete ez dela hautematen duen unearen arabera. Eragindakoak urtebete beranduago edo are beranduago ere jakin dezake ez zuela betebeharrak bete, eta, horren ondorioz, prestazioaren abonua eteteaz gain, oso kopuru altua itzuli behar duela diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa.

Beste alde batetik, nabaria da Lanbidek ez duela arintasunez jardun bidegabe jasotako prestazioak berrikusteko eta eskatzeko prozedurak izapidetzeko orduan, eta, beraz, ez duela konstituzioko 103. artikuluan ezarritako eraginkortasun printzipioa bete. Horrek ez du bat egiten hain kopuru altuak eskatzearekin. Gure ustez, oker jokatzen du hor.

Prestazioa jasotzeko betekizunak betetzen ez direnean edo egokituko litzaiokeena baino zenbateko altuagoa jasotzen denean bakarrik sor daitezke bidegabeko prestazioak, gure iritziz.

Ez da arrazoizkoa betebeharrak bat ez betetzeak hain ondorio larriak izatea ondarearen esferan, ez baitio diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzailearen betekizunei eragiten. Gainera, eragindakoek ez zituzten ondorio horiek ezagutzen. Are gehiago aintzat hartzen bada aipatu ez-betetzeak ondorio negatiboa eduki duela: prestazioa etetea edo iraungitzea eta urtebetez ezin eskatu izatea ekarri du.

147/2010 Dekretuko 56. artikulua ezarri du bidegabe jasotako prestazioak itzuli egin behar direla bakar-bakarrik **diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada**. Legezko aurreikuspen horretatik ez da ondorioztatzen **edozein betebeharraren edozein ez-betetzek** automatikoki ekartzen duenik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jasotzea. Xedapena irakurrita, era berean, ez da ondorioztatzen noiztik balioesten den prestazioa bidegabe jasotzen ari dela. Itzultzeko betebeharrak horren zehazpen gabezia egon arren (ez ditu ez arrazoiak, ez data, ez berrikusteko ahalmenean mugak ezartzen), hau da, araudiaren babes argirik egon gabe, oso zenbateko altuak ari zaizkie eskatzen oro har gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen.

Arartekoaren ustean, ezin daiteke pentsa prestazioa bidegabe jaso denik prestaziorako eskubidea edukitzeko betekizunak betetzen jarraitzen denean eta beste ondorio batzuk eduki dituen betebeharrak baten ez-betetzea gertatu denean. Lanbide balioesten ari da prestazioa etetea erabaki den kasu guztietan automatikoki frogatzen dela bidegabe jaso direla diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria (2/2010 Dekretuko 34. artikulua), egitatea edo





jokaera gertatu zen datatik aurrera, edo pertsonak jokaera jakin bat eduki beharko zukeen egunetik aurrera, nahiz eta Lanbidek askoz ere beranduago hauteman ez-betetze hori.

147/2010 Dekretuko 56. artikulutik ezin daiteke automatikoki ondorioztatu bidegabeko prestazioak sortzen direnik prestazioak eteteko edo iraungitzeko edozein prozeduraren ondorioz, baldintza bat gaineratu baitu: **diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatu behar da**. Horrek zera dakar, abonatuak prestazioak itzultzea eskatu ahal izateko, Lanbidek aurretiaz frogatu beharko lukeela prestazioa bidegabe jaso dela (147/2010 Dekretuko 56. artikulua eta 2/2010 Dekretuko 34. artikulua).

Prestazio ekonomikoaren hartzaile izateko betekizunak betetzen ez direnean edo prestazioa egokituko litzaiokeena baino zenbateko altuagoan jasotzen denean bakarrik jasotzen da prestazioa bidegabe.

Gizarte Segurantzaren lege orokorrak ere aurreikusi du itzuli egin behar direla bidegabe jasotako prestazioak, baina zuhurtzia ezarri du. Horrela, baztertu egin du administrazioaren auto-tutoretza Gizarte Seguratasunaren eremuan; hortaz, eskubideak aitortzeko jarduerak berrikusi ahal izateko demanda aurkeztu behar da lan arloko epaitegiaren aurrean. Norberaren jardueren teoriarik, segurtasun juridikoko printzipioan eta arbitrariotasunaren debekuaren printzipioan oinarritu da muga hori. Administrazioak kasu batzuetan³ soilik berrikusi ditzake prestazioen inguruan egindako jarduerak prozedura berezira jo gabe (gizarte jurisdikzioa erregulatzeko legearen 146. artikulua).

Betekizunak eta eskakizunak berraztertzea, aitortutako prestazioak berriro kalkulatzeko eta hartzaileei itzulketak eskatzea ari da ekartzen Lanbideren eskumen ikuskatzailea, batzuetan irizpide aldaketa baten ondorioz, adibidez, Arartekoaren 2015eko uztailaren 21eko 2015R-777-14 Ebazpenean aztertu genuen bezala. Ebazpen horren bidez, Lanbideri gomendatu zitzaion pentsioduntzat jo zitzala "seme edo alaba baten ardura edukitzearen" ondoriozko diru sariaren kausatzaile jakin batzuk, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2.a) artikulua xedeetarako, eta berrikusi zitzala diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko edo iraungitzeko prozedura batzuk, pentsio-osagarri modalitatean.

Eskubideak aitortzeko jarduerak berrikustean, aintzakotzat hartu behar dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 102. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako aurreikuspenak.

³ Langabeziagatiko eta langile autonomoen jardura eteteagatiko prestazioak, gutxienekoengatiko osagarriak eta pentsioen goratzeak, pentsioen gehienezko mugak gainditzea eta pentsioen hasierako aitortzak aldi berean beste pentsio bat jasotzen ari diren titularrei dagokienez, ezintasun iraunkorraren edo urritasunaren maila berrikustea, hutsegite materialak edo izatezkoak edo aritmetikoak zuzentzea, onuradunaren adierazpenetan hutsuneak edo zehaztasunik eza kontratatzeagatiko berrikuspenak.



Zentzu horretan, Lanbideren eskumenak ezin du prestazioak itzultzeko betebeharra ekarriko duen bide hedagarririk eduki, prestazioaren titularra izateko betekizunei edo esleipena eragin zuten arazoiei eragiten ez dieten betebeharrak bete ez izanean oinarrituta. Espainiako konstituzioko 9.3. artikulua segurtasun juridikorako eskubidea bermatu du. Horrekin, egoera juridiko bat, esaterako, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidearen aitortza, mantenduko delako ziurtasuna bermatzen da, onuradunak berau jasotzeko betekizunak betetzen dituelako, eta administrazioak ezin du, **legezko euskarri argirik izan gabe**, berau itzultzeko eskatu. Arartekoaren iritziz, Lanbide egiten ari den prestazioen eskaera askotan ez dago hain kopuru altuak eskatzea justifikatzen duen legezko oinarririk.

Gainera, aldi batez eten denez prestaziorako eskubidea edo prestazioa iraungi egin denez eta eragindakoak ezin duenez urtebeteko epean berau berriro eskatu, **araudiak betebeharra ez betetzeagatiko "ondorio negatiboa" aurreikusitu du jada.**

Lanbide, prestazioa urtebete arteko denbora tartez eteten eta iraungitzen aritzeaz gain, ez-betetzea gertatu bide zen datatik prestazioaren ordainketa eten artean jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatzen ari da. Ondorio horiek, erakunde honen ustez, ez daude araudian modu argian aurreikusita eta gehiegizkoak dira, pertsonen bizitzari ekartzen dizkioten ondorioak kontuan hartuta.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioek helburu dute beharizan oinarritzearekin aurre egitea, etxebizitzarekin edo ohiko bizilekuarekin eta gizarteratzeko edo lanean txertatzeko prozesutik eratorritako gastuekin lotutako beharrei aurre egitea; hortaz, bidegabe jasotako prestazioen etetea eta itzulketa berme guztiekin hitzartu behar da, eta gogoan eduki behar dira segurtasun juridikoaren, arbitrariotasun debekuaren eta proportzionaltasun epaiaren printzipioak. Zentzu horretan, komenigarriagoa litzateke **aukera egokiagoak ote dauden** neurtzea, prestazioaren hartzaile izateko betekizunak betetzen diren kasuetan.

5.-Aintzat hartu behar da, Arartekoaren iritziz, Lanbidek trataera ezberdina eman beharko liokeela prestazioaren onuradun izateko betekizunak bete bai, **baina diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidearen titular gisa betebeharrak bat bete ez izanari.**

Prestazioen titularra izateko betekizunak betetzen direnean, baina titularrak edo bizikidetzaren unitateko kide batek, prestazioaren hartzaile gisa, betebeharrak bat bete ez duenean, egokiagoa litzateke egin den urraketa egokituko litzaikeen zigorra aztertuko lukeen zigortzeko prozedurara jotzea.

Batez ere, kontuan hartuta kideetako baten ez-betetzeak bizikidetzaren unitate osoari eragiten diola.

Gaur gaurkoz, Lanbidek berdinean erantzuten die larritasun maila oso ezberdina duten jarrerari, erantzulearen asmoa gorabehera edo diru-sarrerak bermatzeko errentarako





eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubideari ekarri dizkion kalteak edo ondorioak edozein izanda ere.

Arartekoaren iritziz, zigortzeko prozedura eta zigortzeko eskumena (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 127. artikulua eta hurrengoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea) aplikatzeak urraketaren larritasunaren eta ezarritako zigorraren arteko behar bezalako proportzionaltasuna gordetzea ahalbidetuko du, izan ere, beste aurreikuspen batzuen artean, zigorrak mailakatu egin behar dira asmoa edo errepikapena egon ala ez egon, bidegabe jasotako zenbateko ekonomikoaren arabera, familiako zirkunstantzien arabera, familiaren egoera ekonomikoaren arabera zehazki, edo berrerortzea egon ala ez egon. Beste alde batetik, legezkotasun, tipikotasun, erantzukizun edo proportzionaltasun eta ustezko erantzulearen eskubideen printzipioak bete behar dira, eta aplikagarria litzateke eskubide horien titularrek eta onuradunek egindako urraketak preskribatzea. Konstituzioko 9.3. artikuluan jasotako segurtasun juridikoaren printzipioari dago zuzenean lotuta azken hori.

18/2008 Legeak urraketan eta zigorraren araubidea aurreikusi du. 105. artikulua ezarri du zein zigor ezarri behar diren aipatu legearen 101-104. artikuluetan tipifikatutako urraketak egin direnean. Aipatu legeko aurreikuspenean, oso urraketa larriak egin direnean baino ez da aurreikusi prestazioak etetea. Beraz, zigortzeko prozeduraren aurreikuspenak "onberagoak" dira pertsona urratzaileekin, Lanbide prestazioak eteteko eta iraungitzeko aplikatzen ari den araubidea baino.

Lanbidek erantzun du ez-betetze mota jakin batzuk zigortzeko prozedurako kasuen markoan kokatzeko bideragarritasun juridikoa aztertzen ari direla, eta erakunde honek ondo balioztatu du hori, **baldin eta aintzat hartzen badira zigortzeko eskumenean aplikatu beharreko printzipioak eta bermeak, bai eta aipatu dugun araudia ere.**

Horren bidez, bereizi egingo lirateke prestazioaren titularrak betebeharren bat bete ez, **baina prestazioaren bizikidetzaren unitate onuraduna izateko 18/2008 Legeko 16. artikuluan eta 147/2010 Dekretuko 9. artikuluan aurreikusitako betekizunik galdu ez duten kasuak.** Horrela, zigorra ezarriko litzateke, baina prestazioaren abonuari eutsiko litzaike, prestazioaren titular izateko betekizunak betetzen direlako. Era berean, prestazioaren abonuari eustea ahalbidetuko luke adin txikikoak badaude eta bizikidetzaren unitateak prestazioaren titular izateko betekizunak betetzen baditu, nahiz eta betebeharren bat ez bete, erakunde honek *Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman, apirilaren 8ko Gomendio Orokorrean* adierazi duen bezala.

6.-Azkenik, erakunde honek Arartekoaren 2015eko ekainaren 8ko 2015NI-2120-14 Ebazpenean adierazitakoa gogorarazi nahi du ebazpen honekin; zehazki, zorra itzultzeari dagokionez 147/2010 Dekretuko 57.4. eta 5. artikuluetan eta 2/2010 Dekretuko 35.4. artikuluan aurreikusitako zatikapena hitzartzeak duen garrantzia



gogorarazi nahi du. Zatikapen horretarako, zorraren zatikapenerako ehuneko eskala ezarri liteke, kontuan hartuta, gainera, kide kopurua, etxeko gastuak, familian haurrak egotea eta bizikidetzaren unitatea guraso bakarrekoa izatea, edo, bestela, hileko zenbateko egokitu eta finkoa ezar liteke, oinarritzko gastuei aurre egiteko ezintasunaren ondorioz gizarte bazterketarako prozesu larriagoak saihestuko lituzkeenak.

Konstituzio Auzitegia, 1989ko ekainaren 22ko 113/1989 Epaian, gizarte prestazioren bat jasotzen duten pertsonen duintasuna bermatzeko garrantziari buruz mintzatu da, eta, duintasun hori lortzeko, bahitu daitezkeen zenbatekoei mugak ezartzeko egokitasuna azpimarratu du.

Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak, batetik, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 22.1. artikulua konstituzioaren aurkakoa dela balioetsi du, izan ere, debekatu egin du Gizarte Segurantzako prestazioak bahitu ahal izatea, baldintzarik gabe eta zenbatekoa dena delakoa izanik ere.

Beste alde batetik, Fº3.ean ondasun eta eskubide jakin batzuen bahiezintasuna babestu du, zordunari bizitza duina izatea ahalbidetze aldera: *"Los valores constitucionales, que conceden legitimidad al límite que la inembargabilidad impone al derecho del acreedor a que se cumpla la sentencia firme que le reconoce el crédito, se encuentran en el respeto a la dignidad humana, configurado como el primero de los fundamentos del orden político y de la paz social en el art. 10.1 de la Constitución al cual repugna, según aduce el Abogado del Estado, que la efectividad de los derechos patrimoniales se lleve al extremo de sacrificar el mínimo vital del deudor, privándole de los medios indispensables para la realización de sus fines personales así como en la protección de la familia, el mantenimiento de la salud y el uso de una vivienda digna y adecuada, valores éstos que, unidos a las prestaciones sociales suficientes ante situaciones de necesidad que debe garantizar el régimen público de Seguridad Social, están constitucionalmente consagrados en los arts. 39, 41, 43 y 47 de la Constitución, y obligan a los poderes públicos, no sólo al despliegue de la correspondiente acción administrativa prestacional, sino además a desarrollar la acción normativa que resulte necesaria para asegurar el cumplimiento de esos mandatos constitucionales, a cuyo fin resulta razonable y congruente crear una esfera patrimonial intangible a la acción ejecutiva de los acreedores que coadyuve a que el deudor pueda mantener la posibilidad de una existencia digna".*

Ebazpen hau egin bitartean, Lanbidek 1/2015 Zirkularra hitzartu duela jakin dugu, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzen zehazpenari buruzkoa. Bertan, zenbait egoera bereizi ditu eta prestazioak itzultzeko aukera ezberdinak aurreikusi ditu, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaile izan ala ez izan, eta, azken kasu horretan, aurretik jasotzen zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoaren %150 baino gehiagoko diru-sarrerak eduki ala ez eduki. Zirkularrak trataera ezberdina ematen du, baita ere, Lanbidek erantzukizunik izan badu zorra sortzeko orduan edo titularrak iruzurrezko jarduerarik egin badu, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko edo mantentzeko asmoz,



jakinaren gainean egonda ere ez dituela horretarako betekizunak betetzen. 18/2008 Legeko 101-104. artikuluetan daude aurreikusita urraketa horiek.

Goragoko diru-sarrerak edukitzekotan edo iruzurrezko jarduerak egin badira, %30eko muga mantentzen da itzulketaren zatikapenean.

Beste kasu batzuetarako, zorraren likidazioa zatikapenaren bidez egitea aurreikusi du zirkularrak, zenbait baldintza kontuan hartuta. Zatikapen hori borondatezko fasean egin daiteke, itzultzeko prozedura baino lehen jakinarazpena jasotzen denean, edo, bestela, fase erabakitzailean, zenbatekoak itzultzeko betebeharra adierazten denean.

Kide kopuruaren araberako ehuneko eskala kontuan hartuta edo 30 euroko kuota sozialaren bitartez egingo da itzulketa, Lanbideren erantzukizuna tartean egon bada edo baldintza jakin batzuk betetzen badira: finantza-aktibo bihurtgarriak eta dauzkaten diru kopuruak zenbateko jakin batzuk baino txikiagoak izatea; bizikidetz-unitatean hiru lagun baino gehiago izatea, edo 18 urtetik beherakoak, ezintasuna duten pertsonak eta/edo mendeko pertsonak izatea edota guraso bakarreko bizikidetz-unitateak; edo hileko kuota zehatza duen mailegua edo bahitura edukitzea.

Zirkularra **aurrerapausoa** da, aurreko egoerarekin alderatuz gero; izan ere, zailtasun erantsidun egoerei erantzuten die.

Ararteko erakundeak segimendua egingo du zirkularra nola betetzen den egiaztatzeko, bertan kontuan hartu ez diren egoera zaurgarriak hautemate aldera, Konstituzio Auzitegiaren arrazoiketari jarraiki, bizitzeko gutxienekoa bermatzeak duen garrantziari dagokionean.

Amaitzeko, ebazpen honek bidegabe jasotako prestazioak eskatzeko prozedurako beste alderdi batzuk jorratu ditu, eta, gure ustean, prestazioen kudeaketa hobetzea ekarriko lukete alderdi horiek; zirkularrak, gure ikuspuntutik begiratuta, arazoaren alde bakarra jorratu baitu.

Horregatik guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honakoa da luzatzen den

GOMENDIOA

Une egokian jakinarazitako zirkunstantzia berrien arabera abonatu beharreko zenbatekoak moldatzeko unean atzerapena egon denean bidegabe jasotako prestazioen kasuan bakarrik bidal dezala Lanbidek zorraren aurretiko jakinarazpena.

Prestazio ekonomikoak bidegabe jaso direla egiaztatzen duenean bakarrik izapidetu ditzala Lanbidek bidegabeko prestazioak eskatzeko prozedurak. Hori egiaztatzeko,





edo betekizunak galdu dira, edo aldaketa egon da zirkunstantzietan, jasotzea egokituko litzaiokeen zenbatekoa moldatzea ekarriko lukeena.

Lanbidek ez ditzala prestazioak eskatzeko prozedurak izapidetu betebeharrak bete ez diren kasuetan, bizikidetzaren unitateek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioetarako onuradunak izateko betekizunak betetzen jarraitzen badute. Izan ere, kasu horietan ez da frogatzen zenbatekoak bidegabe jaso direnik, eta ondorio negatiboaren xede izan dira jada, prestazioa aldi batez eteten baita edo ezin izaten baita urtebetez eskatu.

Berrikusi ditzala betebeharrak ez betetzeak prestazioen hartzaileengan eragiten dituen ondorioak eta bereizi ditzala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko betekizunen bat galtzea dakarten jarrerak eta betekizunik galtzea ez dakarten jarrerak, eta aurreikusi dezala ez-betetzearekiko proportzionala izango den ondorioa, kontuan hartuta legezketasun, segurtasun juridiko, erantzukizun, proportzionaltasun eta tipikotasun printzipioak, bai eta ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako bermeak ere.

Azkenik, baliozta dezala araudia aldatzea, ebazpen honen edukari eta eskubideak aitortzeko jardueren berrikuspenari buruzko legezko aurreikuspenei egokitu dakien.

